

198. araua

Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO)

EBO (III). Letra-estiloak

Euskaltzaindiak 2023ko maiatzaren 26an onartua, Baionan

AURKIBIDEA

- 1 Idazteko sistemen osagaiak
- 2 Estilo tipografikoak
- 3 Letra arruntaren oinarritzko erabilerak
 - 3.1 Leku- eta pertsona-izenak
 - 3.2 Beste hizkuntza bateko izen bereziak
 - 3.3 Beste hizkuntza batzuetakoak izan arren hiztegi orokorrean dauden hitzak
 - 3.4 Erdaretako tratamendu-hitzak
 - 3.5 Izengoitiak, izenordeak, izen artistikoak eta fikziozko pertsonaien izenak
 - 3.6 Animalien izen bereziak
 - 3.7 Komatxo arteko hitzak
 - 3.8 Siglak
 - 3.9 Liburu sakratuak
 - 3.10 Marken eta modeloen izenak
 - 3.11 Generotik gorako kategoria taxonomikoak
 - 3.12 Idazkera teknikoa: funtzioak eta eragiketak, elementu kimikoak, unitateak
 - 3.13 Lan espezializatuetan, hiztegi orokorrean ez dauden hitzak
 - 3.14 Interneteko helbideak, helbide elektronikoak eta informatikako izen bereziak
 - 3.15 Puntuazio-markak
 - 3.16 Legeak eta bestelako arau juridikoak
 - 3.17 Izen berezia duten plan, lege, batzorde eta kidekoak
 - 3.18 Izen berezia duten operazioak, auziak eta kidekoak
- 4 Letra etzan edo italikoaren erabilera

- 4.1 Enfasia emateko
 - 4.2 Metahizkuntza
 - 4.3 Zuzen erabiltzen ez diren hitzak eta lagunartekoak adierazteko
 - 4.4 Adiera bereziko hitza dela edo irudizko adieran erabilia dagoela adierazteko
 - 4.5 Kontzeptu berriak aurkezteko
 - 4.6 Mailegu irentsigabeak
 - 4.7 Hiztegi eta entziklopedietan
 - 4.8 Antzezlan, film eta abarretako gidoietan
 - 4.9 Sorkuntza-obrak
 - 4.9.1 Argitalpenen izenak
 - 4.9.2 Ikus-entzunezkoak eta multimedia-produktuak
 - 4.9.3 Sorkuntza-obra digitalak
 - 4.9.4 Margolanak, argazkiak, eskulturak, arte-instalazioak eta performanceak
 - 4.10 Ekitaldiak: erakusketak, biltzarrak, hitzaldiak, mahai-inguruak...
 - 4.11 Izengoitiak
 - 4.12 Gauzakien izen bereziak
 - 4.13 Fenomeno meteorologikoak
 - 4.14 Animalia eta landareen izen zientifikoak
 - 4.15 Magnitude fisikoen sinboloak eta matematikako aldagaiak
 - 4.16 Letra etzana eta kasu-markak
 - 4.16.1 Adierazpen izendatzaileak
 - 4.16.2 Adierazpen izendatzaileen berezitasuna: izena eta izana beti ez datoz bat
 - 4.16.3 Kasu-markak nola lotu letra etzanez idazten diren adierazpen izendatzaileetan
 - 4.17 Letra etzanaren eta kasu-markaren artean marratxoa aukerakoa da
 - 4.18 Letra etzana eta kasu-markak: amaieran r letra duten hitzak
 - 4.19 Metahizkuntza eta kasu-markak: marratxoa
 - 4.20 Letra etzana eta puntuazioa
- 5 Letra lodiaren erabilera
 - 5.1 Letra lodi etzana
 - 5.2 Letra lodiaren erabilera tipografia teknikoan
 - 6 Letra azpimarratuaren erabilera
 - 6.1 Azpimarra hipertestuetan
-

1 Idazteko sistemen osagaiak

Idazteko sistemen oinarritzko osagaiak grafemak dira, hau da, hizkuntza bat idazteko baliatzen diren gutxieneko unitate grafiko zatietan eta bereizgarriak. Grafemak, hizkera arruntean, letrak dira. Idazkera alfabetikoa duten hizkuntzetan —hala nola euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta abar— grafemen bidez adierazten dira grafikoki hitz egitean ahoskatzen diren hots bereizgarriak, fonemak alegia.

Grafemez gainera, beste baliabide grafiko batzuk ere baliatzen dira idazteko: zeinu ortografikoak. Adibidez, puntuazio-markak, zeinu diakritikoak eta beste zeinu lagungarri batzuk; baita zuriunea bera ere, informazio-unitateak bereizteko (adibidez, hitzak bereizteko).

Badira baliabide grafiko gehiago ere: letra larri edo maiuskulak eta letra xehe edo minuskulak, laburdurak eta sinboloak (zenbakiak, adibidez, sinboloak dira).

Idazteko sistema mekanikoak sortu eta hedatuz geroztik (inprenta, XV. mendean geroztik) eta XX. mendearen azkenaldian geroztik sistema informatikoak sortu, garatu eta orokortu ondoren, baliabide grafiko gehiagor hornitu da hizkuntza idatzia: estilo tipografikoak sortu dira.

2 Estilo tipografikoak

Hitz egitean hitzen bat edo adierazpen jakin bat nabarmendu nahi denean, ahoskatze-indar handiagoa edo tonu-aldaketa ezartzen zaio nabarmendu nahi den horri. Idaztean, ahozko enfasiaren baliokidea enfasi tipografikoa da, eta enfasia emateko ohiko prozedura letraren ezaugarriak aldatzea da. Baliabideetako bat letra-tamaina handitzea da:

enfasia → enfasia

edo letraren kolorea aldatzea:

enfasia → enfasia

edo letren arteko tartearekin jokatzeari:

enfasia → enfasia

baina baliabide horiek diseinu grafikoaren arloan erabiltzen dira gehienbat, eta ez hainbeste testu arrunten barnean. Testu arruntetarako, badira beste baliabide estandar batzuk: letra-estiloak.

Letra-tipo bakoitzak oinarrizko forma bat du, **letra arrunta** deritzona. Horretaz gainera, lau aldaera daude.

- 1) Letraren inklinazioa aldatuta, **letra etzana** edo **letra italikoa** sortzen da.
- 2) Letra larrien tamaina aldatuta, **letra larri txikia** sortzen da.
- 3) Letraren trazuaren lodiera nabarmenduta, **letra lodia** sortzen da.
- 4) Letraren azpian marra bat jarrita, **letra azpimarratua** sortzen da.

letra arrunta

letra etzana

LETRA LARRI TXIKIA

(LETRA LARRI ARRUNTA)

letra lodia

letra azpimarratua

Bestalde, letra etzana, letra lodia, letra azpimarratua eta larri txikiak konbinatu egin daitezke elkarrekin:

letra etzan lodia

letra etzan azpimarratua

letra etzan lodi azpimarratua

LETRA LARRI TXIKI ETZANA

LETRA LARRI TXIKI LODIA

LETRA LARRI TXIKI AZPIMARRATUA

LETRA LARRI TXIKI ETZAN LODIA

LETRA LARRI TXIKI LODI

AZPIMARRATUA

LETRA LARRI TXIKI ETZAN AZPIMARRATUA

LETRA LARRI TXIKI ETZAN LODI

AZPIMARRATUA

Lau aldaera edo letra-estilo horietaz gainera, badira beste bi prozedura letraren ezaugarriak aldatzeko, baina ez dira erabiltzen enfasia emateko, espezializatuta baitaude beste funtzio batzuetarako. Batetik, **letra larriak**, xeheetatik bereizteko; bestetik, letra arruntak lerroan duen posizioa goratuta edo beheratuta, eta tamaina aldatuta, **letra goratua** eta **letra beheratua** sortzen dira, **goi-indize** eta **azpi-indize** ere deituak.

letra xehea: **letra**

letra larria: **LETRA**

goi-indizea: **letra** letra goratua

azpi-indizea: **letra** letra beheratua

Atal honetan, lau letra-estilo nagusiak aztertuko dira: arrunta, etzana edo italikoa, lodia eta azpimarratua. Letra xeheak eta larriak beste atal batean aztertuko dira.

Baliabide tipografikoak erabiltzeko arau ortografikorik ez dago. Horrenbestez, ulertu behar da segidan emango diren jarraibideak testu orokorretarako orientabideak direla, jarraibide ortotipografikoak, ezinbestean, orientagarriak baino ezin baitira izan. Ortotipografiak, izan ere, malgua izan behar du, eta testu bakoitzaren premietara egokitu.

3 Letra arruntaren oinarriko erabilerak

Letra arrunta erabiltzeko berariazko araurik ez dago; batzuetan, dena dela, ikusten da letra arrunta besterik behar ez denean erabiltzen direla beste baliabide grafikoak, hala nola letra etzana, komatxoak edo letra larriak.

Letra arrunta da, lehenespenez, testuetan erabili beharreko letra-estiloa. Alegia, ohiko testu arruntei dagokien letra da letra arrunta, bera baita testu luze bat irakurtzeko errazena eta nekerik txikiena sortzen duena.

Zehazki, kasu orokor hauetan erabiltzen da letra arrunta:

3.1 Leku- eta pertsona-izenak

Leku- eta pertsona-izenak letra arruntez idazten dira, baita beste hizkuntza batekoak badira ere. Adibideak:

(EGOKIA) 2014an, Kotte Ezenarro Hendaiako alkate izendatu zuten.

(DESEGOKIA) 2014an, *Kotte Ezenarro* Hendaiako alkate izendatu zuten.

(EGOKIA) 2014an, Joko Widodo Indonesiako lehendakari bihurtu zen.

(DESEGOKIA) 2014an, *Joko Widodo* Indonesiako lehendakari bihurtu zen.

(EGOKIA) Moldaviako mugen barnean dago Transnistria eskualdea.

(DESEGOKIA) Moldaviako mugen barnean dago *Transnistria* eskualdea.

3.2 Beste hizkuntza bateko izen bereziak

Beste hizkuntza bateko izen bereziak, hala nola erakunde, instituzio, orkestra, antzerki-talde, musika-talde eta bestelako taldeak eta eraikinak, letra arruntez idazten dira, beste arrazoi berezi batengatik beste letra-estiloren bat behar dutenean izan ezik.

Adibideak:

(EGOKIA) Unesco, San Carlo alle Quattro Fontane, Bundestag, Radiodiffusion-télévision française (RTF), The Rolling Stones, Hamas, 'Ndrangheta, Golden Gate.

(DESEGOKIA) *Unesco, San Carlo alle Quattro Fontane, Bundestag, Radiodiffusion-Télévision Française (RTF), The Rolling Stones, Hamas, 'Ndrangheta, Golden Gate.*

3.3 Beste hizkuntza batzuetakoak izan arren hiztegi orokorrean dauden hitzak

Jatorriz euskal hitzak ez izan arren euskaraz erabiltzen diren hitzak, euskararen ortografiara egokituta ez badaude ere, letra arruntez idazten dira baldin eta hiztegian sarrera badira. Adibideak:

ampere, camembert, camping, casting, charleston, newton, ohm, sindhi, thriller, waterpolo, western.

3.4 Erdaretako tratamendu-hitzak

Erdaretako tratamendu-hitzak (frau, madame, sir...) letra arruntez idazten dira euskarazko testuetan erabiltzen direnean. Adibideak:

Clare Sheridan eskultore eta idazlea sir Winston Churchillen lehengusua zen.

Hala, madame Curiek beste material erradioaktibo batzuk aurkitu zituen.

Esertzeko keinua egin zidan frau Monikak.

3.5 Izengoitiak, izenordeak, izen artistikoak eta fikziozko pertsonaien izenak

Letra arruntez idazten dira pertsonen izengoitiak, izenordeak eta izen artistikoak.

Adibideak:

Bilintx, Bernardo Atxaga, Antso Jakituna, Elisabet Katolikoa, Joan Lurgabea, Txikia, Lady Gaga, Markinako Lehoia, Urtain.

Dena dela, izengoitiak izen-deiturekin batera erabiltzen direnean, jarraian, letra etzanez —edo komatxo artean— idazten dira¹. Adibideak:

Dolores Ibarruri *Pasionaria*, Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*, Maite Arroitauregi *Mursego*, Jose Manuel Ibar *Urtain*, Indalezio Bizkarrondo *Bilintx*, Nikolas Ormaetxea *Orix*e, Ignazia Zabalo *Nornai*, Mario Moreno *Cantinflas*, Ana Rita Alberdi *Anari*, Jose Migel Iztueta *Lazkao Txiki*.

Film, komiki, ipuin, antzerki eta, oro har, literaturako eta fikziozko lanen protagonisten izenak ere letra arruntez idazten dira, pertsonak zein animaliak izan. Adibideak:

Asterix, Madame Kontxexi-Urbe, Sherlock Holmes, Superman, Lara Croft, Corto Maltese, Tintin, Milu, Txanogorritxo, Pluto, Pinto, Argi, Rin TinTin, Yogi.

3.6 Animalien izen bereziak

Animalien izen bereziak letra arruntez idazten dira. Adibideak:

Laika txakur kosmonauta; Pirinioetako Camille hartza; Leon XII.a aita santuaren Micetto katua; Cher Ami uso mezulari ospetsua.

Free Willy filmeko Willy orkaren benetako izena Keiko zen. Alexandro Handiaren zaldiak Buzefalo zuen izena; On Kixoterenak, berriz, Rozinante.

3.7 Komatxo arteko hitzak

Komatxo artean idazten diren hitzak (iragarki, armari eta abarretakoak; hitzez hitzeko aipamenak...) letra arruntez idazten dira. Adibideak:

(EGOKIA) «Ekin eta jarrai» da Euskaltzaindiaren goiburua.

(DESEGOKIA) «*Ekin eta jarrai*» da Euskaltzaindiaren goiburua.

(EGOKIA) «Bitartekoa da hizkuntza, ez ontzia: ez du deus barrenean eta zernahi izan dezake», esan zuen Mitxelenak.

(DESEGOKIA) «*Bitartekoa da hizkuntza, ez ontzia: ez du deus barrenean eta zernahi izan dezake*» esan zuen Mitxelenak.

¹ Ikus komatxoen erabilera ortografia-marken atalean.

(EGOKIA) ETB1en, «Plastikoak txipiroi erara» erreportajea ikusi nuen *Teknopolis* programaren barnean.

(DESEGOKIA) ETB1en, «*Plastikoak txipiroi erara*» erreportajea ikusi nuen *Teknopolis* programaren barnean.

3.8 Siglak

Siglak letra arruntez idazten dira, nahiz eta siglaren osagaiak beste hizkuntza batzuetako hitzak izan, eta siglak ordeztu duen izendapena arrunta nahiz berezia izan.

(EGOKIA) Bi CD-ROMetan grabatu du (*compact disc - read only memory*).

(DESEGOKIA) Bi CD-ROMetan grabatu du (*compact disc - read only memory*).

(EGOKIA) Atzo, SMS bat bidali nion (*short message system*).

(DESEGOKIA) Atzo, SMS bat bidali nion (*short message system*).

(EGOKIA) Pompeu Fabra-ren DGLC obra (*Diccionari general de la llengua catalana*).

(DESEGOKIA) Pompeu Fabra-ren DGLC obra (*Diccionari general de la llengua catalana*).

(EGOKIA) 1987an argitaratu zen paperean OEHren lehen liburukia (*Orotariko Euskal Hiztegia*).

(DESEGOKIA) 1987an argitaratu zen paperean OEHren lehen liburukia (*Orotariko Euskal Hiztegia*).

3.9 Liburu sakratuak

Liburu sakratuen izenak eta liburu horien osagai diren liburukien izenak letra arruntez idazten dira. Adibideak:

(EGOKIA) Biblia, Korana, Tora, Vedak, Apostoluen Eginak, Apokalipsia, Deuteronomioa, Genesia/Hasiera, Pentateukoa.

(DESEGOKIA) *Biblia, Korana, Tora, Vedak, Apostoluen Eginak, Apokalipsia, Deuteronomioa, Genesia/Hasiera, Pentateukoa.*

3.10 Marken eta modeloen izenak

Marken eta modeloen izenak letra arruntez idazten dira. Adibideak:

Coca-Cola eta Fanta edari freskagarriak; orain Martini bat edango nuke; nire lehen eskuko telefonoa Nokia zen; amaren bizikleta Orbea da; bigarren eskuko Golf bat; Airbus A330 hegazkin-modeloa; Stinger misilak.

3.11 Generotik gorako kategoria taxonomikoak

Taxonen nomenklaturan, nazioarteko arauetara jarraitzen zaie, eta, oro har, generotik gorako kategoria taxonomikoetan letra arrunta erabiltzen da (birusetan, berriz, letra etzanez idazten dira taxon guztiak), nahiz eta latinezko izenak erabili. Adibidez, hau da *Homo sapiens* espeziearen taxonomia:

Animalia erreinua

Chordata filuma

Vertebrata subfiluma

Tetrapoda superklasea

Mammalia klasea

Theria subklasea

Primates ordena

Haplorhini subordena

Simiiformes infraordena

Hominoidea superfamilia

Hominidae familia

Homo generoa

Homo sapiens espeziea

3.12 Idazkera teknikoak: funtzioak eta eragiketak, elementu kimikoak, unitateak

Idazkera teknikoan, letra arruntez idatzi behar dira beti —baita testua, dena delakoagatik, letra etzanez idatzita badago ere— funtzioak eta eragiketak adierazten dituzten sinbolo matematikoak (log, sin, lim...) eta zeinu berezia dutenak (adibidez, + eta -), neurri-unitateen sinboloak (kg, m, kW...), elementu kimikoen eta konposatu

kimikoen sinboloak (Fe, Co, CO₂, CH₄, H₂SO₄), adierazpen matematikoen barneko digituak (0, 1, 2...) eta parentesiak, parentesi karratuak eta giltzak. Adibideak:

Kalkula ezazu $f(x) = 3x^2 - 2x + 9$ funtzioaren grafikoa.

Kalkula ezazu burdinazko pieza baten masa, 25 °C-tik 100 °C-ra berotua izateko 2508 J xurgatu behar dituela jakinik.

3.13 Lan espezializatuetan, hiztegi orokorrean ez dauden hitzak

Lan espezializatuetan, ohikoa da beste hizkuntza batzuetako hitzak sartzea, dela kontzeptu berriak direlako eta euskaraz ordain ezagunik ez dutelako, dela izaera berezia dutelako edo espezialitate bakoitzean ohikoak direlako. Kasu horietan, hitz horiek euskara-hiztegi orokorretan ageri ez badira, pentsa liteke letra etzana dagokiela, baina irakurlearentzat ezagunak badira eta ulertzeko arazorik izango ez bada, letra arrunta erabil daiteke, eta erabiltzen da, lan espezializatuetan. Adibidez, sukaldaritzako lan batean ratatouille, sashimi, esqueixada, unagi... espezialitateko hitzak dira, eta ez dira nahitaez letra etzanez idaztekoak. Edo ekonomiako lan batean leasing, branding, benchmarking, dumping, networking, outsourcing, workshop... Edo informatikako eta telekomunikazioetako lanetan phishing, streaming, roaming... Testu arruntetan, ordea, hitz horiek guztiak letra etzanez idatzi ohi dira, lexiko orokorrean finkatzen ez diren bitartean behintzat.

3.14 Interneteko helbideak, helbide elektronikoak eta informatikako izen bereziak

Interneteko helbideak (URL helbideak), helbide elektronikoak, informatikaren eta telekomunikazioen arloko programa eta sistema eragileen izenak, programazio-lengoaien izenak eta teknologien izenak letra arruntez idazten dira. Adibideak:

www.euskaltzaindia.eus/, bulegoa@eizie.eus; Linux, Windows; InDesign, QuarkXPress, LaTeX; Google Chrome, Mozilla Firefox, Skype, WhatsApp; Java, Python, Fortran.

3.15 Puntuazio-markak

Puntuazio-markak, marrak, marratxoak, parentesiak, giltzak eta abar letra arruntan estiloan idazten dira baldin eta paragrafoko testu orokorra ere letra arruntez idazten bada. Adibidez:

Erkametzak (*Quercus faginea*) ezkurak ematen ditu.

Azter dezagun [-(e)kiko + izenondoa + izan] kasua.

3.16 Legeak eta bestelako arau juridikoak

Legeak, nazioarteko tratatuak, dekretuak, zuzentarauak, erregelamenduak eta gainerako xedapenak letra arruntez idazten dira.

Adibidez:

Zigor Kodea, Europar Batasunaren Tratatua, Lurralde Historikoen Legea, Nafarroako Foru Orokorra, Merkataritzako Erregistroaren Erregelamendua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

OHARRA

Nolanahi ere, arau juridikoa oso luzea baldin bada eta horregatik elementu adierazgarri guztiak letra larriz hasita idazten ez badira, letra etzanez idatz litezke testu baten barnean aipatzean, araua non hasten den eta non bukatzen den argi zedarritzearren. Adibidez:

Ez da ahaztu behar hor dagoela *14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa*, lehenago ere aipatua.

3.17 Izen berezia duten plan, lege, batzorde eta kidekoak

Izen berezi batez (sortzailearen edo buruaren izenaz) bataiatutako plan, politika, batzorde, lege eta kidekoen izenak letra arruntez idazten dira, bai eta hedabideetan eta modu ez-ofizialean lege batzuk izendatzeko baliatzen diren izendapen deskribatzaile garden arruntak ere. Adibidez:

Tubon legea, Marshall plana, Baker plana, Truman doktrina, Eisenhower doktrina, Ibarretxe plana, Corcuera legea, Delors batzordea².

² Inoiz anbiguotasunik gerta liteke pertsona-izenarekin. Adibidez:

Ibarretxe plana onartzearen alde dago = Ibarretxeri ondo iruditzen zaio plana onartzea.

Ibarretxe plana onartzearen alde dago = Ibarretxeren plana onartzea ondo iruditzen zaio norbaiti.

2011n sartu zen indarrean Espainian tabakoaren aurkako legea.

Frantziako About-Picard legea edo sekten aurkako legea

Noiz onartu zen unibertitateen legea?

Legea izendatzeko erabiltzen den moldea deskribatzaile garden hutsa ez baizik eta adierazkorra edo kritikoa edo iritzizkoa denean, berriz, letra etzanez idaztea ere aukeratu daiteke, adierazkotasun hori nabarmentzearen. Adibidez:

Lege horrek txiki uzten ditu *mozal legea* eta *ateari ostikoa emateko legea*.

Eta dena delako arau juridikoa modu adierazkorrean izendatzeko perpaus oso bat erabiltzen denean, perpaus oso hori bakarrik nabarmentzea aukeratu daiteke. Adibidez:

Alderdi politiko batzuek *soilik bai da bai* legea aldatu nahi zuten.

3.18 Izen berezia duten operazioak, auziak eta kidekoak

Izen berezi batez bataiatutako auziak, aferak, operazioak, kanpainak eta kidekoak letra arruntez idazten dira. Adibideak:

Torch operazioa, Dreyfus afera, Bofors afera, Watergate auzia, Urralburu auzia, Ostadar operazioa, Basamortuko Ekaitza operazioa.

4 Letra etzan edo italikoaren erabilera

Letra etzana edo italikoa deritzo letren trazu bertikalak eskuinerantz okertuak dituenari. Horretaz gainera, letra arruntak baino forma biribilxeagoak izan ohi ditu batzuetan (letra-tipoaren arabera).

letra arrunta LETRA ARRUNTA; letra arrunta LETRA ARRUNTA

Halakorik gertatuz gero, eta testuinguruak anbiguotasuna argituko ez balu, erredakzioa moldatzea komeniko litzateke, anbiguotasuna ezabatzeko. Adibidez, lehen kasuan, subjektua esplizitatzea:

Ibarretxe lehendakaria plana onartzearen alde dago; Ibarretxe bere plana onartzearen alde dago.

Bigarren kasuan:

Ibarretxe plana onartzearen alde dago urlia.

letra etzana LETRA ETZANA; letra etzana LETRA ETZANA

Letra etzana oinarrizko prozedura bat da adierazteko testu bateko hitz batek edo hitz-multzo batek esanahi berezi bat duela, hizkuntzaren lexiko orokorrean duenaz bestelakoa dela. Esanahi horretarako baliatzen diren beste bi prozedura badira: komatxoak eta letra larriak.

Jarraian emango diren arauak testu orokorretarako orientabideak dira, eta ez arau hertsia; izan ere, testu orokorrez landa, badira erabilera sektorial eta premia bereziak eta bada argialetxearen estiloa ere. Guztiarekin ere, komeni da zenbait printzipio orokor betetzea.

Letra etzanaren oinarrizko zeregina, letra arruntez idatzitako testu batean txertatzean, testu arruntetik nolabait bereiztea edo nabarmentzea da; hau da, irakurleari adieraztea hitz bati edo sintagma bati arreta berezia jarri behar diola, zenbait arrazoi direla eta: hitza ez dela ohikoa edo ezaguna, nahita gaizki idatzita dagoela, hizkera berezi bati dagokiola edo ez dagoela diskurtsoan bere berezko esanahiarekin txertatuta (metahizkuntza dela).

4.1 Enfasia emateko

Irakurleari hitz jakin bati buruz ohartarazteko erabiltzen da, eta, elkarrizketa-testuetan, hitz bat modu berezian, hanpatuta, ahoskatzen dela adierazteko. Adibideak:

Ez, amak ez, *neuk* erantzun nion.

Behar zuelako ez, *gogoak eman ziolako* erosi zuen.

Lanean dagoela? Ez dira gauza bera lanean *egotea* eta lan *egitea*.

4.2 Metahizkuntza

Hizkuntzari buruz jarduteko erabiltzen den hizkuntzan letra etzana idazten da hitzari berari buruz jardutean, edo hitza bera definigai denean. Adibideak:

Silababakarra da silaba bat besterik ez duen hitza; adibidez, *silababakar* ez da silababakarra, baina *da*, berriz, silababakarra da.

Behin eta berriro aipatu zuen frantsesezko hitz bera: *liberté* (askatasuna).

Kasu horretan, beharrezkoa da koma jartzea *eta* lokailuaren aurrean.

Hona hemen bi palindromo: *autore erotua* eta *Utzi penak Ane, piztu!*

Haurrak *pitxitxi* esaten dio katuari.

Bost bokalak alfabetoaren hurrenkeran dituen hitza da *areriotu*.

Kasu-markekin batera erabili behar denerako, ikus 4.19 puntua.

4.3 Zuzen erabiltzen ez diren hitzak eta lagunartekoak adierazteko

Hitzen bat jakinaren gainean gaizki idatzita dagoela adierazteko edo lagunarteko hizkera nabarmentzeko. Adibideak:

Atzo *ikusitxio* zure lagunari.

Niri *kotxolatea* asko gustatzen zait.

Ama, Ertzaintzaren *likotero* bat pasatu da hegan ikastola gainetik.

Etxean gaude, *pele* bat ikusten.

Etole *etxela*, ondo pasatuko dugu.

Aaa, *kapia* erori *zaitak* praktetara!

Dena dela, testu-zatiak hitzez hitz transkribatzen direnean, *sic* latin-adberbioa erabiltzen da nabarmen uzteko haren aurrean dagoen hitza halaxe jaso dela eta ez dela idazlearen idazte-huts bat, edo adierazteko harrigarria dela hori horrela agertzea. Latin-adberbio hori erabiltzen denean, haren aurrean dagoen hitza edo hitz-multzoa ez da letra etzanez idazten. Adibidez:

Euskal literaturaz ari direlarik, hona zer jartzen duen kazetariak editorearen hitzetan: «Gero, azken belaunaldira pasatuko ginatke: Bernardo Atxaga eta Ramon Sarrionandia (*sic*)».

Orentzero, buruaundia, entretenimentuz (*sic*) jantzia...

Komatxo artean ere adieraz daitezke horrelakoak.

4.4 Adiera bereziko hitza dela edo irudizko adieran erabilia dagoela adierazteko

Kristoren *txokolate*-puska zeraman poltsikoan.

Hantxe zeuden *mari-saltsa* haiek, geldi-geldirik.

Aita santua izateko *finalisten* artean egon zen.

Komatxo artean ere adieraz daitezke horrelakoak.

4.5 Kontzeptu berriak aurkezteko

Testu didaktikoetan, kontzeptu bat lehen aldiz aurkezten denean edo hari buruzko azalpena edo definizioa ematen denean. Adibideak:

Hizkuntza batean esanahia duen forma beregain txikiena da *hitza*.

Fisikan, *uhinak* oszilazio- edo bibrazio-higidura periodikoak dira.

Nolanahi ere, estilo-kontua da; hau da, letra etzana erabil daiteke, baina ez da nahitaezkoa erabiltzea. Adibidez, testuren batean kontzeptu berri asko aurkezten badira, astungarri gerta daiteke letra etzana.

4.6 Mailegu irentsigabeak

Jatorriz kanpokoak diren eta euskararen arau ortografikoak betetzen ez dituzten hitz arruntak, baldin eta *Euskaltzaindiaren Hiztegian* sarrera ez badira.

OHARRA

Kanpoko izen bereziak, hala nola leku-izenak (Vladivostok, Silicon Valley...) pertsona-izenak (Vladimir Putin, Xi Jinping...) eta erakunde- edo marka-izenak (Lufthansa, Feyenoord, The North Face...), ez dira letra etzanez idazten.

Erdal hitzak izan arren, idazkera euskararen arau ortografikoetara egokitua badute eta *Euskaltzaindiaren Hiztegian* sarrera badira, euskal hitzen maila berean daude, eta ez dira letra etzanez idatzi behar. Adibideak:

bermut, esmokin, espageti, kanpin, konplot, klub, makarroi, marketin, tuper, txalet, txat.

Beste batzuetan, jatorrizko grafia atxikita sartu dira *Euskaltzaindiaren Hiztegian*, eta orduan ere ez da beharrezkoa letra etzanez idaztea. Adibideak:

apartheid, blues, buffet, bunker, capoeira, croissant, diletante, gay, ghetto, glamour, hacker, jacuzzi, joker, kit, light, play-back, software, windsurf, yuppie.

Beste erdal hitz asko ez dira sarrera *Euskaltzaindiaren Hiztegian*. Era horretako hitzak letra etzanez idaztekoak dira, printzipioz, euskarak beretu gabeko maileguak baitira.

Adibidez:

backgammon, briefing, butifarra, capuccino, jet, homeless, joystick, jumbo, kart, kitsch, mosso, ninot, password, rating, saudade.

Hala ere, erlatibizatu behar da hori. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* ez da produktu ihartua. Hiztegi dinamikoa da, etengabe eguneratzen ari dena, eta gero eta hitz gehiago barneratzen ari dena; haietako asko, gainera, maileguak dira.

Bestalde, letra arruntari buruzko atalean azaldu den moduan, lan espezializatuetan ohikoa da beste hizkuntza batzuetako hitzak sartzea, dela kontzeptu berriak direlako eta euskaraz ordain ezagunik ez dutelako, dela izaera berezia dutelako edo espezialitate bakoitzean ohikoak direlako. Hitz horiek euskara-hiztegi orokorretan ageri ez badira ere, irakurlearentzat ezagunak badira, letra arruntez erabili ohi dira lan espezializatuetan eta ez da beharrezkoa letra etzanez idaztea.

Azkenik, hitz bat *Euskaltzaindiaren Hiztegian* sarrera ez bada, ez da ondorioztatu behar automatikoki letra etzanez idatzi beharra. Adibidez, hitz tekniko asko eta asko ez dira sarrera hiztegi orokorretan (eta oso litekeena da aurrerantzean ere sarrera ez izatea), hala nola autokobariantza, elektronistagmografia, fotoautotrofo edo kimiolumineszentzia, baina hitz arruntak dira, letra arruntez idaztekoak.

Latinismoak eta testuan txertatzen diren beste hizkuntzetako hitz eta esaldiak ere letra etzanez idazten dira. Adibideak:

Tesiari cum laude kalifikazioa eman zioten.

Erreforma horrekin, *de facto* atzeratuko da erretiro-adina.

4.7 Hiztegi eta entziklopedietan

Hiztegi eta entziklopedietan, ohikoa da adieraziaren adibideak eta beste marka batzuk (adibidez, espezialitate-marka, euskalki-marka edo erregistro-marka) letra etzanez ematea, definizioetan erabiltzen den letra arruntetik bereizteko. Adibidez, *Euskaltzaindiaren Hiztegian*, espezialitatearen laburdura (biol.) letra etzanez ageri da:

taxon iz. *biol.* Bizidunen sailkapen biologikoko sailtako bakoitza. *Taxonak hierarkia baten arabera antolatzen dira, erreinutik subespeziera.*

4.8 Antzezlan, film eta abarretako gidioetan

Antzezlanetako eszena-oharrak eta film-, telebista- edo irrati-gidoietako oharrak ere letra etzanez idatzi ohi dira, parentesiak barne, antzezleen testutik bereizteko. Adibidez:

1. pertsonaia: Lasai egon. Oso trebeak gara, eta ez duzu arazorik izango.
(*Hirurek egiten dute barre*)

2. pertsonaia: (*Paperak bilatzen hasten da*) Non demontre sartu ditugu gure oharrak?

3. pertsonaia: (*Erreminta-kutxan begiratzen du*) Hemen utzi genituen... Hemen daude!

1 pertsonaia: (*Paperak hartuz*) Lehenengo eta behin, jakin behar dugu zenbat kable dauden.

4.9 Sorkuntza-obrak

Sorkuntza-obrak, oro har, hala nola liburuak, filmak, margolanak, eskulturak (arkitekturako artelanak izan ezik), musika-obrak, irrati eta telebistetako programak eta abar letra etzanez idazten dira testu baten barnean doazenean (ez, nahitaez, errotulu batean, soilik daudenean, ondoan beste testurik ez dutela) lehen hitza bakarrik letra larriz hasita (baita izen berezien lehen letra ere, baldin badago).

Oharra: sorkuntza-obren kasuan (batez ere, literaturan eta zineman), dena delakoagatik (adibidez, obra euskaratu gabea delako) jatorrizko izenburua erabiltzen bada eta haren ondoan eta parentesi artean itzulpena ematen bada, jatorrizkoa letra etzanez idazten da, eta itzulpena, berriz, letra arruntez. Adibideak:

Billy Wilder zuzendariaren *Some Like It Hot* (Batzuei bero gustatzen zaie) filma.

Jane Campion-ek zuzendaririk onenaren Oscar saria eskuratu zuen 2022an *The Power of the Dog* (Txakurraren boterea) filmagatik.

Umberto Ecoeren *Il pendolo di Foucault* (Foucaulten pendulua) 1988an argitaratu zen.

Ken Folletten eleberririk ospetsuena *The Pillars of the Earth* (Lurraren pilareak) da.

4.9.1 Argitalpenen izenak

Letra etzanez eta letra larriz hasita idazten dira argitalpenen izenak: liburuak (era guztietakoak, eleberriak, poemak, ipuinak...), tesiak, komikiak. Beste hainbeste egunkari eta aldizkariak, bai eta aldizkari-egunkarien gehigarriak ere, modu bereizian argitaratzen badira. Poemen eta ipuinen kasuan, beste obra handiago baten parte badira, letra etzanez eta hasierako letra larriz idazten dira bakarrik erabiltzen direnean. Obra nagusiarekin batera izendatzen direnean, ordea, obra nagusia letra etzanez idazten da, eta komatxo artean, berriz, poema edo ipuina. Adibideak:

Zer da, zehazki, Euskaltzaindiaren Hiztegia?

Miren Agur Meaberen *Nola gorde errautsa golkoan* lana.

Berria, *Le Monde* eta *The Times* egunkariak gainbegiratzen ditu egunero.

Etxean, *Argia*, *Senez* eta *Uztaro* aldizkariak jasotzen ditugu.

Deia egunkariaren *Hemendik* gehigarria.

Behin eta berriro irakurtzen zuen *Ipurbeltz* komikia.

Arestiren poemarik ezagunena *Nire aitaren etxea defendituko dut* izango da, nik uste.

Gabriel Arestiren «Nire aitaren etxea defendituko dut» poema ezaguna *Harri eta Herri* liburuan argitaratu zen lehen aldiz, 1964. urtean.

Bertol Brechten *Galileoren bizitza* antzezlanaren euskaratu zuen Miren Billelabeitiak 2004an.

Laura Menattik *Geofilosofia berri bat: mundu global bateko espazioaren eta lekuaren kontzeptuen analisisa* izeneko tesia aurkeztu du.

Idatzizko obren parteak letra arruntez eta komatxo artean idazten dira. Adibideak:

Fisika orokorra liburuaren «Lana eta energia» kapituluan aurkituko duzu azalpena.

«Orga idien aitzinean, baina zelako idien aitzinean?» artikulua idatzi zuen Kepa Altonagak *Jakin* aldizkarian 2002an.

Baldin eta obra baten izenburu baten parte batek jatorrian letra etzanez idatzi beharreko parteren bat badu barnean, jatorrizko etzan horri komatxoak jartzen zaizkio, garbi uztearren non hasi eta non bukatzen den. Adibidez:

«*Leturiaren egunkari ezkutua*»ri buruzko iruzkinak izeneko saiakera-liburu bat argitaratuko da aurki.

SALBUESPENAK

- Liburu-bildumak letra arruntez idazten dira. Adibideak:

Bidegileak bildumako *Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi»*. *Gizon polifazetiko eta intelektual osoa* liburuxka.

Igela argitaletxearen Enigma bilduma.

- Berri-agentziak enpresa edo erakundeak dira, eta letra arruntez idazten dira.

Adibideak:

France-Press agentzia, EFE agentzia, Associated Press agentzia, Reuters agentzia, Xinhua agentzia.

- Liburu sakratuak, eta haien osagaiak. Adibideak:

Biblia, Korana, Tora, Vedak, Apostoluen Eginak, Apokalipsia, Deuteronomioa, Genesisia/Hasiera, Pentateukoa.

4.9.2 Ikus-entzunezkoak eta multimedia-produktuak

Filmak, diskoak, antzerki-obrak, irratsaio eta telesaioak, bideo-jokoak eta podcastak letra etzanez idazten dira. Adibideak:

Oraindik ez dut ikusi *Blade Runner* filma, ezta *Potemkin korazatua* ere.

ETBko *Teknopolis* programa 1999an jaio zen.

Maite Artolak zuzendu zuen Euskadi Irratiko *Faktoria* saioa.

1980an kaleratu zuen Ruper Ordorikak lehen diskoa: *Hautsi da anphora*.

Verdiren *Rigoletto* opera.

Frantziako ereserkia *La Marseillaise* da.

Bertsoen mundua CD-ROMa 1997an argitaratu zen.

Durangoko Azokan, *Barraka* euskarazko abentura-bideojokoak irabazi zuen sormen-beka.

Kanten izenak ere, beste obra handiago baten parte badira ere, letra etzanez eta hasierako letra larriz idazten dira bakarrik erabiltzen direnean. Obra nagusiarekin batera

izendatzen direnean, obra nagusia idazten da letra etzanez, eta komatxo artean, berriz, kanta. Beste hainbeste irratsaio eta telebista-saioen atalekin³. Adibideak:

Amaitzeko, Txoria txori eta Gernikako arbola abestu zuten.

Verdiren *Nabucco* operaren pasarterik ezagunena «Va, pensiero» korua da.

Hertzainak taldearen «Aitormena» kanta ospetsua *Amets prefabrikatuak* diskoaren barnean kaleratu zen.

4.9.3 Sorkuntza-obra digitalak

Aldizkari eta egunkari digitalen, blogen, atarien eta wikien eta, oro har, hiztegi, entziklopedia edo glosarioen izenak edo nabarmenki aldizkari edo liburutzat har daitezkeen webgune eta atarien izenak letra etzanez idazten dira (baina ez datu-bankuen edo bilatzaileen izenak edo baliabide-bilduma hutsen webguneak edo aplikazio informatikoen izenak). Adibideak:

Zut aldizkari digitala

Hona hemen euskarazko hiru blog: *Sustatu*, *ZuZeu* eta *31 eskutik*.

Zientzia.net ataria

Wiktionary wikiak ia zazpi milioi sarrera ditu.

4.9.4 Margolanak, argazkiak, eskulturak, arte-instalazioak eta performanceak

Letra etzanez idazten dira. Adibideak:

Auguste Rodinen eskulturarik ezagunena *Pentsalaria* da.

Picassoren *Gernika*, Johannes Vermeerren *Neska perladuna* eta Sandro Botticelliren *Venusen jaiotza* margolanak.

Chris Burdenen *Shoot* eta Vito Acconciaren *Seedbed* izan ziren 1971ko eta 1972ko performancerik sonatuenak.

Eskubideen gunea arte-instalazioa inauguratu dute Donostian.

SALBUESPENAK

³ Kontuan hartu behar da badirela erabilera sektorial bereziak ere. Adibidez, prentsa idatzian komatxoak adierazpenetarako bakarrik erabili ohi dira, eta, horregatik, haien estilo-hobespena da letra etzana erabiltzea beti, hala obra nagusia nabarmentzeko nola obraren barneko edozein parte nabarmentzeko.

- Historiaurreko eta Antzinaroko eskulturetan obraren jatorrizko izena (baldin eta jatorrizko izenik inoiz izan bazuen) ezezaguna da. Horregatik, modu deskribatzailean izendatzen dira, leku-izen bati lotuak askotan. Halakoetan, letra arruntez idazten dira, ez letra etzanez. Eta izendapenaren osagaiak (izenlaguna eta izena izaten dira gehienetan; eta generikoak, batzuetan, izenondoa ere izaten du) letra larriz hasita idatzi ohi dira, baldin eta generikoak adierazten duena eskulturak irudikatzen duenarekin bat badator. Adibidez:

Venus Milokoa, Elx-eko Dama, Delfosko Auriga, Osunako Zezena.

Adibide horietan guztietan, izena ez da jatorrizkoa, ez da egileak emandakoa, eta eskulturak zer irudikatzen duen adierazten du generikoak: Elx-eko Dama dama baten eskultura da; Delfosko Auriga auriga baten eskultura da; Osunako Zezena zezen baten eskultura...

Beste batzuetan, generikoak ez du deskribatzen zer irudikatzen duen eskulturak, baizik eta objektu-mota. Halakoetan, letra xehez hasita idazten dira generikoak eta dena letra arruntez. Adibidez:

Saien estela, Partenoiko frisoa, Elginen marmolak, Rodasko kolosoa, Belvedereko tortsoa, Nefertitiren bustoa.

Izendapen horietan, *estela*, *friso*, *marmol*, *koloso*, *tortso* eta *busto* izenek eskultura-mota —objektu-mota, alegia— deskribatzen dute; alde horretatik, ez dira aurreko saileko *dama*, *auriga* eta *zezen* izenen gisakoak.

Pinturak edo eskulturak, batzuetan, oso handiak dira, eta beste monumentu edo eraikin batzuetan txertatuta egoten dira; askotan, iturri apaingarrietan. Orduan, monumentu-izaera hartzen dute; hau da, monumentutzat hartzen dira, eta, horrenbestez, ez dira letra etzanez idazten. Beraz, arkitekturako artelanak balira bezala idazten dira. Adibideak:

Done Petriko baldakinoa (Vatikanoa), Askatasunaren estatua (New York), Rushmore mendiko monumentua (Hego Dakota, AEB), Lau Ibaietako iturria (Erroma), Kristo Erredentorea (Rio de Janeiro).

Azkenik, egileak emandako berariazko izenik ez duten eskulturak edo pinturak modu informalean izendatzen dira, letra etzana erabili gabe. Adibideak:

Aita Mariren bustoa, Ama Birjina baten eskultura, Buda etzan baten eskultura, Vesta jainkosaren irudikapena.

- Arkitektura-lanen izenak —monumentuak, eraikinak, eraikin-zatiak, ingeniari-eta eraikuntzak eta, oro har, izaera monumentaleko arkitektura-multzoak eta elementuak— letra arruntez idazten dira; hau da, nahiz eta artelanak izan, leku-izentzat hartzen dira, eta ez dira letra etzanez idazten. Adibidez:

Barberini jauregia, Chrysler eraikina, Done Petri basilika, Eiffel dorrea, Etxe Zuria, Golden Gate zubia, Kapera Sistinoa, Babiloniako lorategi esekiak, Luxorko obeliskoa, Dioklezianoren jauregia, Keopsen piramidea.

4.10 Ekitaldiak: erakusketak, biltzarrak, hitzaldiak, mahai-inguruak...

Hitzaldi, mahai-inguru, ponentzia eta kidekoen gaia, izen espezifikoa, letra etzanez idazten da (bestela, komatxo artean ere jar daiteke⁴). Adibideak:

Xabier Garagorrik *Zer izan nahi duzu handitan?* ponentzia aurkeztu zuen.

Ekainaren 5ean, *Emakumeak bertso munduan* mahai-ingurua Martin Ugalden.

Zuhaitzekin bizi hitzaldia emango du Jakoba Errekondok.

Horren harira, *Eskoriatza eta txirrindularitza* erakusketa antolatu dute.

Gaur eta bihar *TIC para la paz* biltzarra izango da Aieteko Bakearen Etxean.

Ekitaldiak izen espezifikorik ez badu eta deskribatzailea bada, letra arruntez idazten da. Adibideak:

Artista Gazteen Topaketak.

Oroimenari eta Bizikidetzari buruzko Biltzarra.

Kultura-eskubideei buruzko Mahai-ingurua.

1925eko Dekorazio Arteen Nazioarteko Erakusketa.

4.11 Izengoitiak

⁴ Ikus komatxoaren erabilera ortografia-marken atalean.

Izengoitiak izen-deiturekin batera erabiltzen direnean, jarraian, letra etzanez —edo komatxo artean⁴— idazten dira. Adibideak:

Dolores Ibarruri *Pasionaria*, Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*, Ignazia Zabalo *Nornai*, Jose Manuel Ibar *Urtain*, Indalezio Bizkarrondo *Bilintx*, Nikolas Ormaetxea *Orixe*, Mario Moreno *Cantinflas*, Jose Migel Iztueta *Lazkao Txiki*.

Baita ponte-izena eta izengoitia deiturarik gabe erabiltzen direnean ere, izengoitia deitura ez dela adierazteko. Adibideak:

Josu *Ternera* inkomunikatzea eskatu zion epaileari.

Santi *Potros* ETAko buruzagi ohia.

Jack *Tripa-ateratzailea*.

Hala ere, artista, ekintzaile eta kirolari ezagun batzuen izen ezaguna goitzenak eta deiturak osatzen dute. Kasu horietan, letra arrunta erabiltzen da. Adibideak:

Che Guevara; Chapo Guzmán; Magic Johnson; Kuko Ziganda.

Goitizena ponte-izenaren eta deituraren artean idazteko ohitura dago ingelesez eta Amerikako gaztelanian, eta orduan goitizena letra etzanez idazten da. Adibidez:

Ernesto *Che* Guevara; Joaquin *Chapo* Guzmán.

Euskaraz, hurrenkera horrek ez du tradiziorik, eta ez da bultzatzekoa. Beraz, molde horien ordeztu, hauek dira ohikoak:

Ernesto Guevara, *Che* edo Che Guevara; Joaquin Guzmán, *Chapo* edo Chapo Guzmán.

Beste hainbeste euskal izenekin:

Robustiana Mujika, *Tene* edo Tene Mujika (eta ez Robustiana *Tene* Mujika).

Jean-Baptiste Coyos, *Battittu* edo Battittu Coyos (eta ez Jean-Baptiste *Battittu* Coyos).

4.12 Gauzakien izen bereziak

Izen berezia duten era guztietako ibilgailu, arma eta bestelako gauzakiak, benetakoak zein fikziozkoak, letra etzanez idazten dira. Adibideak:

Prestige itsasontzia; *Nautilus* itsaspekoa; *Missouri* korazatua; *Igeldoko Harria*; *Albizuri Handia*; *Hubble* espazio-teleskopioa; *Titanic* transatlantikoa; Tolosako *Nairobiarra* autobusa; *Excalibur* ezpata, *Enola Gay* hegazkina; Lindbergh-ek *Spirit of San Louis* hegazkinean zeharkatu zuen Atlantikoa; alemanen *Berta Handia* kanoia; *Mir* espazio-estazioa, *Apollo 11* espazio-ontzia; *Sputnik 1* satelitea; *Voyager 2* zunda; Sanpedrotarra Arraun Elkartearen trainerua *Libia* da; pailazoen *Tortolika* hegazkina.

Marken, serien, modeloen eta programen izenak, berriz, letra arruntez. Adibideak:

Saturn V suziria; Sputnik programa; Apollo programa; Renault Clio; Orbea bizikleta; Airbus A330 hegazkin-modeloa; Stinger misilak.

4.13 Fenomeno meteorologikoak

Fenomeno meteorologikoen izen bereziak, hala nola tifo, urakan, zikloi eta ekaitzenak, letra etzanez idazten dira.

Katrina eta *Sandy* izan dira Estatu Batuetan kalterik handienak eragin dituzten urakanak.

Mitch urakana.

Filomena elur-ekaitzak Espainia astindu zuen 2021eko urtarrilean.

El Niño fenomeno.

4.14 Animalia eta landareen izen zientifikoak

Nazioarteko kodeetan finkatuta daude bizidun-taldeen izen zientifikoak kategoria taxonomikoen arabera osatzeko eta idazteko arauak. Latinezko izendapenak (edo latinizatuak) erabiltzen dira. Espezieetik gorako kategoria taxonomikoetan izen bakarrek izendapenak baliatzen dira, baina espezieak izendatzeko bi hitzeko sistema erabiltzen da, sistema binomiala. Hala, lehen hitza generoaren izena da (izen generikoa), eta letra larritz hasita idazten da; bigarren hitza espeziearen mugatzailea da (izen espezifikoa), eta letra xehez idazten da. Eta bi hitzak etzanez idazten dira. Adibideak:

Escherichia coli bakterioa ugaztunen hesteetan bizi da.

Pagoa (*Fagus sylvatica*) eta gaztainondoa (*Castanea sativa*).

Homo sapiens espeziea.

Batzuetan izen subespezifikoa bat ere erabiltzen da izendapen binomialaren ondoren, subespeziea izendatzeko, eta hori ere letra etzanez idazten da. Adibidez:

Atlasko lehoiaren izen zientifikoa *Panthera leo leo* da; hau da, *Panthera* generoko *Panthera leo* espezieko *Panthera leo leo* subespeziea da.

Oxychilus helveticus cantabricus

Bizidun baten izen zientifikoa osorik idazteko, izena adierazten duten bi hitzen ondoren, espezie hori lehenik aurkitu edo deskribatu zuen ikertzailearen izena jartzen da, letra arruntez, eta, askotan, haren laburdura erabiltzen da. Adibidez:

Passer domesticus Linnaeus; *Passer domesticus*, L.

SALBUESPENAK

Espeziea (sp.), espezieak (spp.), subespeziea (subsp.), barietatea (var.) eta forma (f.) hitzen laburdurak ez dira letra etzanez idazten. Adibideak:

Acer saccharum subsp. *floridanum*

Vigna unguiculata var. *catjang*

Rhododendron spp.

Viola sp.

4.15 Magnitude fisikoen sinboloak eta matematikako aldagaiak

Nazioarteko hitzarmenei jarraituz, magnitude fisikoen sinboloak eta aldagai matematikoen sinboloak letra etzanez idazten dira testu tekniko eta didaktikoetan; unitateen sinboloak, berriz, letra arruntez. Adibideak:

$F = 15 \text{ N}$ (indarraren balioa hamabost newton da).

Baldin eta $a = b$ eta $b = c$, orduan $a = c$.

Dinamikaren oinarrizko ekuazioa hau da: $F = m a$

Hau da ekuazioa: $14x^3 + 5x^2 - 7x + 12 = 78$

Ixaren logaritmo nepertarra ($\ln x$).

Presioaren sinboloa P da, eta denborarena t .

4.16 Letra etzana eta kasu-markak

Letra etzanez idazten den hitza absolutiboan badago eta artikulua baldin badu, artikulua ere (-a) letra etzanez idazten da. Adibideak:

Euskaltzaindiaren Hiztegia hiztegi arauemailea da; 1991n egiten hasi eta 2015ean burutu zen *Hiztegi Batua* da haren oinarria.

(Alegia, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*, eta ez *Euskaltzaindiaren Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*)

Ez dira gauza bera lanean *egotea* eta lan *egitea*.

(Alegia, *egotea* eta *egitea*, eta ez *egotea* eta *egitea*)

Letra etzanez idazten den hitzari edo hitz-multzoari kasu-marka ezarri behar zaionean, bi aukera teoriko daude: kasu-markari ere letra etzana ezartzea edo kasu-marka letra arruntez idaztea. Kasu-markari ere letra etzana ezartzea erosoagoa da idazlearentzat, testu-prozesadorean errazagoa baita hitz oso bat hautatzea hitz-zati bat hautatzea baino. Hala ere, letra etzana erabiltzeko arrazoia izen berezi bat edo adierazpen izendatzaile bat markatzea, zedarritzea denez, eta kasu-marka izen berezi horren edo adierazpen izendatzaile horren parte ez denez, kasu horietan ez da logikoa kasu-markari ere letra etzana ezartzea.

Horregatik, kasu-markak letra arruntez idaztea da gomendinoa. Hala ere, baieztapen hori zehaztu beharra dago, kontuan hartu behar baita zer-nolakoa den letra etzanez dagoena.

Lexiko arrunteko hitzak direnean eta enfasia emateko (4.1 puntua), zuzen erabiltzen ez diren hitzak eta lagunartekoak adierazteko (4.3 puntua), adiera bereziko hitza dela edo irudiko adieran erabilia dagoela adierazteko (4.4 puntua) edo mailegu irentsigabeak adierazteko (4.6 puntua) letra etzana baliatzen denean, kasu-marka ere letra etzanez idazten da. Adibidez:

Lanean *aritzearen* eta lanean *egotearen* arteko aldeaz ohartuko da noizbait.

Ama, handitzen naizenean, *likoteroan* ibiliko naiz airean.

Aita santua izateko *finalisten* artean egon zen.

Horregatik, *ohiturei* erreparatzen die, ez *jarrerei*.

1980ko hamarkadan, *contra* izeneko paramilitarren aurka jardun zen Nikaraguan, baina *contrek* segada batean harrapatu eta hil egin zuten.

Letra etzana metahizkuntza adierazteko baliatzen denean, berriz, kasu-markak ez dira letra etzanez idazten (ikus 4.19 puntua).

Kasu-markak letra arruntez adierazteko gomendioa adierazpen izendatzaileetarako da, eta haien ezaugarriak hartu behar dira kontuan. Euskaltzaindiaren 183. arauan (*Adierazpen izendatzaileen deklinabidea*) xehe azalduta dago gaia, eta handik hartu dira, moldatuta eta laburtuta, azalpen nagusi hauek:

4.16.1 Adierazpen izendatzaileak

Adierazpen izendatzaileak: izen berezien baliokideak

Izen berezien eremuan, berezko izen bereziez gainera, badira pertsona-izen edo leku-izen ez diren adierazpen izendatzaileak ere: lexiko arrunteko hitz batez edo gehiagoz osatuta daude (*Orotariko Euskal Hiztegia, Garoa, Ehun metro, Euskararen Gramatika, Uda-gau bateko ametsa, Berria, Ezkongaietan, Gorde nazazu lurpean, Neska perladuna, Espezieen jatorria, Nafarroako Aldizkari Ofiziala...*), edo, bestela, lexiko arrunteko hitzen eta izen berezien konbinazio finko batez (adibidez, margolan hauen izenburuak: *Venusen jaiotza, Toledoko bista, Volgako zirgariak*), haien erreferentea bakarra da (berezko izen berezietan bezala), eta identifikatze- eta bereizte-funtzio nabarmena dute; hots, izen berezien antzeko funtzioa dute. Halakoak dira era guztietako artelan eta bestelako sorkarien izenak.

4.16.2 Adierazpen izendatzaileen berezitasuna: izena eta izana beti ez datoz bat

Adierazpen izendatzaileetan, esanahi formalak ez du nahitaez bat etorri behar izendatzen duen erreferentearen izaerarekin. Adibidez, *Argia* izendapenaren erreferentea ez da argia, aldizkari bat baizik; *Garoa* ez da garo-landarea, eleberri baten izenburua baizik; *Neska perladuna* ez da perla bat duen neska bat, margolan baten izena baizik; *Uda-gau bateko ametsa* ez da egun jakin bateko amets bat, antzezlan baten izenburua baizik; *Ehun metro* ez da luzera-neurketa baten emaitza, eleberri baten izenburua baizik; *Ezkongaietan* ez da *noiz* galderaren erantzun bat, kanta baten izenburua baizik.

Beste batzuetan, berriz, adierazpen izendatzailearen esanahi formala bat dator adierazpenak izendatzen duen erreferentearen esanahiarekin; hau da, adierazpena erreferentearen deskripzioa da, edo deskripziotzat har daiteke: izena eta izana bat datoz. Adibidez, *Orotariko Euskal Hiztegia* hiztegi bat da, *Euskararen Gramatika* gramatika bat da; *Nafarroako Aldizkari Ofiziala* aldizkari bat da.

4.16.3 Kasu-markak nola lotu etzanez idazten diren adierazpen izendatzaileetan

Letra etzanez idaztekoa den adierazpen izendatzaileari kasu-marka jartzeko orduan, kontuan hartu behar da izena eta izana bat datozen ala ez.

- Baldin izena eta izana bat ez badatoz, izendapen izendatzailearen azken hitza osorik hartu behar da kasu-marka jartzeko, izen berezi bat balitz bezala, eta adierazpen izendatzailea izen-sintagma mugatzaileduna baldin bada, mugatzailea ez da inoiz kendu behar; alegia, Nafarroa edo Zuberoa leku-izenetan gertatzen den bezala (Nafarroan, Nafarroako, Nafarroatik...; Zuberoan, Zuberoako, Zuberoatik...). Adibidez:

(EGOKIAK)

Berriko kazetariak.

Uda-gau bateko ametsako pertsonaia nagusiak.

Saizarbitoriaren *Ehun metron* antiheroi gisa agertzen da protagonista.

Andu Lertxundiren *Letrak kalekantoitiken* irakurri nuen esamolde hori.

Atxagak *Obabakoaken* bulgarierako itzulpena aurkeztuko du Sofian.

Xabier Letek *Zeruko Argian* idatzi zuen hori.

Auguste Rodinen *Pentsalariaren* bi pieza daude, biak brontzezkoak.

Auguste Rodin eskultorearen *Pentsalariatik* abiatuta, gogoeta filosofiko bat egingo dute.

Margolan hau Vermeerren *Neska perladunan* oinarrituta dago.

Zein da Botticelliren *Venusen jaiotzaren* esanahia?

(DESEGOKIAK)

Berriko kazetariak.

Uda-gau bateko ametseko pertsonaia nagusiak.

Saizarbitoriaren *Ehun metroan* antiheroi gisa agertzen da protagonista.

Andu Lertxundiren *Letrak kalekantoian* irakurri nuen esamolde hori.

Atxagak *Obabakoen* bulgarierako itzulpena aurkeztuko du Sofian.

Xabier Letek *Zeruko Argian* idatzi zuen hori.

Auguste Rodinen *Pentsalariaren* bi pieza daude, biak brontzezkoak.

Auguste Rodin eskultorearen *Pentsalaritik* abiatuta, gogoeta filosofiko bat egin zuen.

Margolan hau Vermeerren *Neska perladunean* oinarrituta dago.

Zein da Botticelliren *Venusen jaiotzaren* esanahia?

- Izena eta izana bat datozenean, adierazpen izendatzailearen azken hitza artikuluduna izango da (*Euskaltzaindiaren Hiztegia, Nafarroako Aldizkari Ofiziala, Euskara Batuaren Eskuliburua, Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideak*), eta artikulua hori galdu egingo da kasu-marka batzuk hartzean, Basaburua edo Iruñea leku-izenetan gertatzen den bezala (Basaburuaren, Basaburuari, Basaburuan... baina Basaburutik, Basaburuko, Basaburura...; Iruñearen, Iruñeari, Iruñean... baina Iruñetik, Iruñeko, Iruñera...). Adibideak:

Euskaltzaindiaren Hiztegia egiteko lan-prozedura

Euskaltzaindiaren Hiztegiak sarrera berriak ditu

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren ez dauden hitzak

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren xedeak

Euskaltzaindiaren Hiztegiari buruzko azalpenak

Adibideak *Euskaltzaindiaren Hiztegitik* atera ditugu

*Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko adibideak

Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideek zehazten dute puntu hori.

(EGOKIAK)

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren xedea euskarazko hitzak txukun erabiltzen laguntzea da.

Adibide hori *Laborantzako liburutik* hartua da; ez *Hiztegi Batutik*.

Orotariko Euskal Hiztegiko lantaldea.

Horretarako, *Nafarroako Aldizkari Ofizialaren* Zerbitzura jo beharko du.

Euskararen Herri Hizkeren Atlasari buruzko informazioa lortu nahi du.

Iragarkia *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera* bidali da.

(DESEGOKIAK)

Adibideak *Euskaltzaindiaren Hiztegiatik* atera ditugu.

Orotariko Euskal Hiztegiako lantaldea.

Euskararen Herri Hizkeren Atlasi buruzko informazioa lortu nahi du.

Iragarkia *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialara* bidali da.

4.17 Letra etzanaren eta kasu-markaren artean marratxoa aukerakoa da

Etzanez dagoen hitzak eta kasu-markak letra-estilo desberdina dutenez, ez da beharrezkoa marratxoa jartzea bien artean, garbi baitago non bukatzen den bata eta non hasten bestea (ikus salbuespenak 4.18 eta 4.19 puntuetan). Dena dela, letra-tipo batzuetan elkarren ondoan gertatzen den letra etzanaren eta letra arruntaren arteko uztardura ez da aratza eta teilakatzea gerta daiteke. Adibidez:

Hizteg̃tik, Hiztegitik, Hiztegitik, H̃ztegitik, Hiztegitik

Orduan, marratxoa funtzionalki beharrezkoa ez izanik ere, estetikoki egokia gerta daiteke teilakatzea desegiteko. Adibidez:

Hiztegi-tik, Hiztegi-tik, Hiztegi-tik, H̃ztegi-tik, Hiztegi-tik

Kontrara, marratxoa nahitaez erabili beharra astun gerta daiteke letra etzanezko adierazpen ugari dituen testu batean. Horregatik, ez dirudi komenigarria denik puntu honetan irizpide estua ezartzea. Horrenbestez, estilo-aukera izango da marratxoa erabiltzea edo ez erabiltzea. Adibideak:

Atxagak *Obabakoaken* bulgarierako itzulpena aurkeztuko du Sofian.

Atxagak *Obabakoak-en* bulgarierako itzulpena aurkeztuko du Sofian.

Adibideak *Euskaltzaindiaren Hiztegitik* atera ditugu.

Adibideak *Euskaltzaindiaren Hiztegi*-tik atera ditugu.

Bederatzi kirolari arituko dira *Albizuri Handiarekin* lehian.

Bederatzi kirolari arituko dira *Albizuri Handia*-rekin lehian.

New York *homelessez* beteta zegoela iruditu zitzaion.

New York *homeless*-ez beteta zegoela iruditu zitzaion.

4.18 Letra etzana eta kasu-markak: amaieran *r* letra duten hitzak

Letra etzanez amaitzen den hitza *r* letraz amaitzen denean, marratxoaz lotzen zaio kasu-marka, gaizki ahoskatzeko biderik ez emateko. Adibideak:

Ez ziren oso eroso egoten *Mir*-eko kosmonautak.

Excalibur-en famak itzal egin zien gainerako ezpata-izen ospetsu guztiei.

Mireko eta *Excaliburen* jarritz gero, [mireko] eta [excaliburen] ahoskatzeko bidea ematen da, erre bigunarekin.

Baina, orain, beren jabetza defendatzean, frantziar nekazariaren etsaiak ez dira kosakoak, baizik eta *huissier*-ak eta zerga-biltzaileak.

Orobat ez da pentsatu behar ordezkari demokratiko guztiak *shopkeeper*-ak direla edo izan nahi dutela.

4.19 Metahizkuntza eta kasu-markak: marratxoa

Metahizkuntzarako (ikus 4.2 puntua) letra etzana erabiltzen da, eta, kasu-markak erabili behar direnean, marratxoa jarri ohi da letra etzanez idatzita dagoen hitzaren eta kasu-markaren artean. Adibideak:

Ikusiko dugu *omen*-ek eta *ote*-k badutela adizki jokatuaren eskuinean agertzeko aukera.

Zubeldiak hiru ezaugarriekin definitzen du *omen*-en balioa zein den.

Batzuek *ala* juntagailuaren erabilera galde perpausari lotu diote, eta *edo*-rena asertzioari.

Batzuetan, badirudi *elkarren*-en ordezkari bata bestearen edo antzeko itzulia nahiago izaten dugula.

Hemen *nolako*-ren baliokidea da.

4.20 Letra etzana eta puntuazioa

Testu batean hitz jakin batzuk nabarmentzearren letra etzana erabiltzen denean, logikak eskatzen du testuari dagozkion puntuazio-markak letra arruntak bezala idaztea, testuaren letra-estilo bera erabiliz, eta nabarmendutako hitz edo hitz-multzoei dagozkienak, berriz, letra etzanak bezala idaztea. Hori da ohiko jokabidea, eta gomendatu beharrekoa. Adibidez (puntuazio-markak letra lodiz nabarmenduta daude, hobeto erakustearren):

Badakigu *briefing*, *capuccino*, *homeless*, *joystick* eta gisakoak ez direla euskal hitzak.

(Komak letra arrunten estiloan daude, esaldiari dagozkiolako)

Zer deitu didazu, *kaikua*?

(Galdera-marka letra arrunten estiloan dago, esaldiari dagokiolako)

Zer da, latinez, *Quo vadis?* ?

(Lehen galdera-marka letra etzanen estiloan eta bigarrena, esaldiari dagokiona, letra arrunten estiloan)

Palindromoa da, adibidez, *Utzi penak Ane, piztu!* esaldia.

(Harridura-marka letra etzanen estiloan dago, nabarmentzen ari den multzoari dagokiolako)

Dena dela, idazteko erosotasuna eta lastertasuna ere kontuan hartu beharrekoak dira. Horregatik, tipografiako-estilo gisa, gomendatu ohi da puntuazio-marka baxuak —koma, puntua eta etenpuntuak— aurrean duten hitzaren letra-estiloarekin uztea. Izan ere, puntuazio-marka horiek oso txikiak dira, eta ez da alde nabarmenik izaten letra arrunten estiloan idatzi edo letra etzanen estiloan idatzi (letra arrunten estiloan: | . | , | ... |; letra etzanen estiloan: | . | , | ... |). Baina, gomendio horrekin batera, puntuazio-marka altuak (puntu eta koma, bi puntu, galdera-marka, harridura-marka eta komatxoak) aurreko hitzaren letra-estiloarekin edo testuaren letra-estilo orokorrarekin idaztea, puntuazioa zeri lotuta dagoen. Sistema hori erosoagoa da, logikoena ez bada ere. Sistema hori aplikatuta, honela geldituko lirateke aurreko adibideak:

Badakigu *briefing*, *capuccino*, *homeless*, *joystick* eta gisakoak ez direla euskal hitzak.

(Puntuazio-marka baxuak: komak letra etzanen estiloan, haien aurreko hitza dagoen bezala)

Zer deitu didazu, *kaikua?*

(Puntuazio-marka altua: galdera-marka letra arrunten estiloan dago, esaldiari dagokiolako)

Zer da, latinez, *Quo vadis?* ?

(Puntuazio-marka altua: lehen galdera-marka letra etzanen estiloan, nabarmenduta dagoen hitz-multzoari dagokiolako, eta bigarrena, berriz, letra arrunten estiloan, esaldiari dagokiolako)

Palindromoa da, adibidez, *Utzi penak Ane, piztu!* esaldia.

(Puntuazio-marka altua: harridura-marka letra etzanen estiloan, nabarmenduta dagoen hitz-multzoari dagokiolako)

Parentesi artean dagoen testua letra etzanez idatzita dagoenean, parentesiekin nola jokatu ez dago argi. Batetik, arazo tipografiko bat dago: parentesi barneko testua letra etzanez baldin badago eta parentesia letra arrunten estiloan, gerta daiteke letra parentesiaren gainean gelditzea. Adibidez:

(ñ, (ñ, (d), (t)

Arazo hori tipografikoki konpondu behar da, letraren eta parentesiaren arteko tartea handituz (ohiko testu prozesadoreek badute aukera hori). Beste aukera bat, berriz, parentesiak ondoan duten letra bezala jartzea da: letra arrunt baten ondoan badaude, letra arrunten estiloan, eta letra etzan baten ondoan badaude, letra etzanen estiloan.

Uniformetasunaren ikuspegitik, parentesia letra arrunten estiloan jartzea da egokiena, parentesia testu orokorrari baitagokio, eta ez nabarmendu nahi den parteari. Hala ere, tartea egokitu beharraren arazo praktikoa du.

Horretaz gainera, hobe da parentesiek esaldiaren letra-estiloa izatea eta ez parentesi artean dauden hitzen letra-estiloa. Inguruko hizkuntzetan irizpideak ez datoz bat, eta,

gainera estilo-kontu hutsa ere bada. Horregatik, ez dirudi beharrezkoa denik gomendio zorrotz bat ematea.

5 Letra lodiaren erabilera

Tipografian, lodia letra-tipo baten aldaera bat da. Haren ezaugarria da trazua lodiagoa izatea letra arruntarena baino, bai eta itxuraz ilunagoa izatea ere.

letra arrunta; LETRA ARRUNTA

letra lodia; LETRA LODIA

Gainerako letra-estiloen aldean, lodia aski berria da. XIX. mendearen amaieran hasi zen erabiltzen; dena dela, ez da asko erabiltzen, eta haren erabilera murrizteko joera izan da, nabarmenegia delako. Letra lodiaren zeregin nagusia testuaren parte bat nabarmenago agerraraztea da. Letra etzanak ez bezala, ez du izaten semantikari edo asmoari lotutako zereginik, eta nagusiki enfasia emateko baliatzen da. Hau da, hitz bat edo hitz-multzo bat nabarmentzeko edo testu baten elementuak sailkatzean haien garrantzi erlatiboa azpimarratzeko.

Oro har, letra lodia baliagarri gertatzen zaio irakurleari testuan garrantzitsutzat jotzen den zerbait berehala aurkitzeko. Hori da letra etzanaren aldean duen beste desberdintasun bat: letra etzanak ezartzen duen enfasia irakurtzeko orduan baino ez da nabari, baina letra lodia testuaren multzo osoari begiratzean ageri da, testua irakurri gabe ere antzematen baitzaio:

Testu-zati handiago baten barnean, letra <i>etzanez</i> dagoen hitz bat ez da biziki nabari; testu hori <i>irakurtzen</i> denean soilik adierazten du testuinguru-aldaketa bat. Aitzitik, letra lodiz dagoen hitz batek giza begia erakartzen du; beraz, egokia da irakurlea <i>bilatzen</i> ari den giltza-hitzetarako.

Letra lodia, beraz, testu bateko hitz edo pasarte garrantzitsuak nabarmentzeko erabil daiteke; adibidez, dokumentu didaktiko batean, edo nabarmendu behar diren testu laburretan, hala nola ohar batean edo jakinarazpen garrantzitsu batean, informazioa lokalizatzea erraztearren. Adibidez:

Ekitaldira joateko bazara, jakinarazi guri **maiatzaren 25a baino lehen**, mesedez.

Nolanahi ere, zuhurtziaz baliatu behar da, letra lodiz josita dagoen testu batean begiak non aukeratu ugari izango baitu eta, ondorioz, galdu egingo baitu bereizgarritasuna. Horretaz gainera, letra lodi asko duten testuak ez dira estetikoki atseginak. Kontuan hartu behar da, dena dela, pantailetan letra lodia irakurgarriagoa gertatzen dela letra etzana baino.

Aurkibideetan, sarrera edo termino jakin baten erreferentziarik garrantzitsuenak nabarmentzeko erabiltzen da. Adibidez:

-kunde 4.5.1b, **4.5.5**, 4.5.6a

partitiboa (-ik) 13.10.7.6f, 15.1a, 15.2.2i, **15.5**, 23.2.1.3.1e, 23.2.2.4e

Orobat erabiltzen da letra lodia testuaren barneko elementu hierarkikoak nabarmentzeko. Adibidez, testuko izenburuak eta azpiizenburuak, edo taula bateko zutabeen izenburuak, zerrenda bateko hasierako letrak edo, bilera-agirietan, proposamenak eta erabakiak nabarmentzeko. Adibideak:

AZPIIZENBURUETAN

28.1 Sarrera: mota bereko osagaien juntadura

28.1.1 Maila bereko sintagmak elkartzen dira

28.1.1a Aurreko ataletan ikusi den bezala, hizkuntzan (...)

ZERRENDETAN

Beraz, honako esku-hartze hauek nabarmendu ditzakegu:

- a** Pazienteari bere autozainketan laguntzea, ahal den guztietan haren autonomia lortzen saiatuz.
- b** Presentzia iraunkorra eta ohikoa mantentzen saiatzea, pazienteak laguntza eskatu ahal izan dezan behar duen guztietan.
- c** Talde-lana. Nekatuta edo gaindituta dauden profesionalak ordezteak.
- d** Gaixoari hobetu daitezkeen gauzetan aholku ematea, bere buruarekin, ingurunearekin, artatzen duten profesionalekin eta abarrekin hobeto senti dadin lortzeko.

TAULETAN

13.1 TAULA. Deliriumaren diagnostiko diferentziala			
Nahasmendua	Ezaugarriak	Lotutako sintomak	Bilakabidea
Deliriuma	Kontzientzia-mailaren gorabeherak, arreta gutxitzea	Desorientazioa, oroimenaren narriadura, agitazioa, apatia, haluzinazioak	Hasiera akutua eta laburra; kasu askok atzera egiten dute azpiko arrazoi medikoak zuzenduz gero
Dementzia	Oroimenaren narriadura. Arreta-galerarik ez	Desorientazioa, egonezina. Inoiz edo behin, haluzinazioak.	Hasiera motela eta progresiboa. Iraupen luzekoa.
Depresioa	Tristura, anhedonia	Loaren, apetituaren eta kontzentrazioaren nahasmenduak.	Gertaera bakarra edo gertaera errepikatuak

Ohikoa da, bestalde, hiztegi eta entziklopedia inprimatuetan sarrerak letra lodiz nabarmentzea. Adibideak:

azpizun iz. Abereetan, bizkarraren eta saihsen arteko haragi-zerrenda, sukaldaritzan guztiz aintzat hartzen dena. Ik. **solomo**. *Txerriaren azpizuna*.

passage

NOM MASCULIN

a) = venue

guetter le passage du facteur postaria pasa dadin beha egon – fakturraren igaritea goaitatü (ZU)

regarder le passage des oiseaux dans le ciel zeruko txorien pasaiari beha egon

lors d'un récent passage à Paris berriki Parisetik iragan delarik

"passage interdit" "debekatua da pasatzea" – "pasajea debekatürik" (ZU)

(...)

1 bide

- 1 iz. **vía; camino**

ahuntz-bidea: camino de cabras

bide zuzena, makurra, okerra: buen, mal camino

bide ona, txarra, gaitza: camino bueno, malo

• 2 iz. **camino, trayecto**

(...)

5.1 Letra lodi etzana

Letra lodi etzana testuaren barneko azpiizenburuetan —edo azpiizenburuaren azpiizenburu gisa— erabil daiteke. Adibidez:

Tratamendua

Tratamendu farmakologikoa

Tratamendurik erabilienak erradioterapia, kimioterapia, kortikoideak eta stentak jartzea (...)

Tratamendu ez-farmakologikoa

Gaixoari azaltzea zer egoeratan dagoen, zer tratamendu posible dauden (...)

Nolanahi ere, zuhurtziaz erabili behar da. Ez da komeni letra lodi etzanean dagoen pasartea luzea izatea, irakurtzeko nekagarria baita.

5.2 Letra lodiarene erabilera tipografia teknikoan

DIN eta ISO arauen gomendioa da bektoreen, tentsoreen eta matrizeen sinboloak letra lodi etzanez idaztea (hala ere, fisikan ohiko praktika da bektoreak eta tentsoreak letra lodi arruntez idaztea). Eskuizkribuetan —adibidez, arbelean idaztean—, berriz, letra lodiarene ordez sinboloaren gaineko gezia erabiltzen da, aldagaiaren izaera bektoriala agerian jartzeko, baina testu inprimatuetan hobe da sinboloaren gaineko gezia ez erabiltzea. Adibideak:

abiadura bektorea = \mathbf{v} edo (eskuizkribuetan) \vec{v} ; indarra = \mathbf{F} edo (eskuizkribuetan) \vec{F} .

\mathbf{A} eta \mathbf{B} matrizeen arteko biderkadura.

6 Letra azpimarratuaren erabilera

Azpimarratzea nabarmendu nahi den hitzaren (edo hitzen) azpian lerro bat marraztea da. Nabarmentzeko modu hori eskuzko idazkeran sortu zen, inprenta asmatu baino lehen. Gaur egun ere, makinaz idatzitako testuetan ere erabiltzen da batzuetan, hitz bat edo batzuk nabarmentzeko —enfasia emateko—, letra etzanaren edo lodiaren baliokide gisa. Dena dela, testu inprimatuetan azpimarratua ia ez da erabiltzen enfasia emateko, letra xeheen beheranzko trazu bertikalak ebakitzen baititu (*g, j, p, q* eta *y* letretan) eta hori irakurgarritasunaren kalterako baita:

pagoa, garajea, yoga

Testu inprimatuetan, batzuetan bigarren mailako enfasi gisa erabiltzen da azpimarra, hau da, jada letra lodiz edo letra etzanez nabarmenduta dagoen pasarte batean hitzen bat are nabarmenago adieraztearren. Adibidez:

Hau egin behar duzu: **inprimakia bete, sinatu eta maiatzaren 25a baino lehen harrerako postontzian utzi**. Epe horretatik kanpo iristen diren eskabideak ez dira onartuko.

6.1 Azpimarra hipertestuetan

Idazkera digitalaren elementurik bereizgarriena hipertestua da, hitzak Interneteko beste orri edo fitxategiekin lotzeko eta haietara jotzeko aukera ematen duen baliabidea. Hipertestua adierazteko, azpimarra erabili ohi da tradizionalki. Hala, dokumentu elektroniko batean hitzen bat edo hitz-multzoren bat azpimarratua ageri denean, badakigu beste zerbaitekin estekatuta dagoela eta hartan sakatuz gero beste zerbaite agertuko dela pantailan. Horretarako erabiltzen da nagusiki azpimarra web-dokumentuetan eta posta elektronikoetan. Horregatik, irakurlea ez nahasteko, komeni da azpimarra horretarako bakarrik erabiltzea dokumentu elektronikoetan. Adibidez:

Iraupen laburrekoak direnez, ez dira errazak hautematen, baina astronomoek uste dute nahiko ohikoak direla. Hortaz, horrelakoak bilatzeko asmoa dute, haien ezaugarriak hobeto ezagutzeko helburuz. [Nature aldizkarian argitaratu dute ikerketa.](#)

Dena dela, azken urteotan gero eta gehiago ikusten dira azpimarrarik gabeko hipertestu-estekak. Sagua gainerik pasatzean bakarrik ageri da azpimarra, baina ez modu iraunkorren; edo zuzenean ez da ageri azpimarrarik eta kolorea aldatzen da bakarrik sagua gainerik pasatzean. Arrazoa estetikoa da, hainbeste azpimarrarik gabeko orrialdeak atseginoak direlako. Halakoak dira, adibidez, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* barneko estekak:

pinporta

1 iz. Landareetan, kimua edo lorea sortzera doan pikor modukoa. Ik. **begi 8; lore begi; pipil**.

2 iz. Gauza biribil txikia. Ik. **pikor**.